

Hiru urte pasatu dira Erdogan presidente turkiarrak Siriako kurduen kantoia okupatu zuenetik, bere hitzetan eskualdea «askatzeko». Baina haizeak Turkiaren bandera Afrin hiriko zeruetan astintzen jarraitzen du, eta ez dirudi etorkizun hurbil batean erriatuko denik. Siriako Armada Nazionalea (SAN) deitutakoaren kontrolpean, kurduak historikoki berea izan den kantoia galdu dute. Eta, jakina, lehen olibondoaren lur hauetan bizi zirenak itzalpean bizi dira orain, edo beren etxetik ihesi joan dira. Turkiaren kontrolpeko Afrinen, bere SANeko aliatuek daukate justiziaren ardura: «1.886 polizia dauzkagu», nabarmendu du Mohammed Husseyin komandanteak. Baina gobernuz kanpoko erakundeek eta instituzioek argi daukate: Ankarak Siriako lurretan operazio militarrek egiteko baliatu duen SANen baitan islamista erradikal asko daude. «Gu, bertako polizia legez, eta Turkiako Armada, Afrinera bakea ekartzen saiatzen ari gara. 2018. urteko ekainaren 18an hartu genuen, Turkiaren laguntzarekin, polizia lanaren

AFRIN: COVID-AREN ISILTASUNETIK GERRA HOTSETARA

Albert Naya Mercadal (Afrin)

Kurduen kantoiko gerra krimenak argitu gabe jarraitzen duten bitartean, covid-ak bizitzak hartzen ditu isilpean eta txertoaren horizontea ez da inon ageri. Desplazatuak kanpamenduetan fusil automatikoen hotsei birus isil bati baino beldur handiagoa diote.

ardura. Eta misio asko dauzkagu, zibilak laguntzea edo droga trafikatzailen eta kriminalen aurka borrokatzea. Baina batez ere, terrorismoa», nabarmendu du Husseyinek. Eta zera gaineratu du: «Gure erronka handiena terroristak eta erregimen siriarra dira. Hor dago ISIS ere, jakina, baina erasoan %80 PKK/YPGrenak dira eta gainerakoak ISIS eta erregimenarenak». Bere bulegoan Recep Tayyip Erdoganaren erretratua dauka ageri-agerian, eta mahai gainean dauzkan paper guztiak ikusita, badirudi dena kontrolpean duela. «Atentatu guztiak dokumentatzen ditugu», adierazi du, atentatu baten irudi gordinak erakustearekin batera. Eta bonba autoen basakeriaz mintzo dela, Herriaren Babes Unitateak (YPG, kurdueraz) egin ditu atentatu gehienak erantzule. Turkiarentzat, jakina denez, YPGak Kurdistango Langileen Alderdiari (PKK) lotuak daude.

Okupatzaileen polizia honek, baina, ez du erantzunik populazio kurduaren aurkako bahiketa, hilketa eta bortxaketen aurrean, Nazio Batuen Elkartek (NBE) berak salatu baditu ere. NBERen Siriarako Ikerketa Batzordearen arabera, Ankararen aliatu askok egindako ekintzak gerrako krimenak dira, eta 2018. urtean esan zuen etnikoki arabiarrek zirenak kurduen etxeak bereganatzea eskualdeko populazioaren osaera etnikoa behin betiko aldatzeko saio bat zela.

BI ALDEETAN BIOLENTZIA

«30 metrora izan zen, nire semea ere zauritu zuten, eroek bakarrik egiten dute hori». Adnan Abu Rabu-ren hitzak dira, Afrin hirian zauritutako azken biktime-tako batenak. Bonba auto baten leherketak harrapatu zuen bere automobila konpontzen zegoela eta orain Afrineko Ospitaleko UZlan dago, hil ala bizi. Haren historia beste askoren historia da, baina berak kontatu dezake. Aurtengo lehen bi hilabeteetan, Ankarak PKKri egozten dizkion atentatuek hamarnaka hil dituzte.

Olibondoaren Adarraren atetik, 2018ko operazio militarren ondoren Siriara sartzeko Turkiak inauguratu zuen sarre-ratik, kilometro gutxira yazidien hainbat herri daude. Agureak besterik ez dira geratzen. «Gazte guztiek Irakera, Turkiara



edo Europara ihes egin zuten», azaldu digu Amir-ek, eskualdeko *muhtar*-ak. Islamismo erradikalak yazidiak mendeetan zehar jazarri ditu. Orain 19 herrixka baino ez dira geratzen, eta horietako batetik mintzo da Amir. «Batzuek PKKren presentziagatik ihes egin zuten, beste batzuk Siriako Armada Librearen aurreratzegatik. Turkiarrekin ongi gaude».

Mahai luze batean eserita, agure guztiek isilean aditzen dituzte liderraren hitzak, nahiz eta batzuen desadostasunak milaka kilometrora entzun ahal diren. Haietako batek ahapeka esan du islamistek txikitu zituzten leku sakratuen berre-raikuntzarako turkiarrek eman zuten dirua iritsi dela aitortu arren edo Ankarak Ilargi Gorria yazidien beharrian batzuk asetzeko ekartzen duen arren, beren herriaren egoerak noraezean, hondoratzen jarraitzen duela.

Eta demografia oso argia da zentzu horretan: «Gerra baino lehen, 2010ean, 40.000 yazidi inguru ginen eskualde honetan, orain ez gara 3.000 baino gehiago». Yazidien %90ek ihes egin zuten beren etxetik. Baina haien lurak ez dira hutsik geratzen. «Gerrarekin beste lurralde batzuetako arabiarrek etorri ziren, lehen baino ohikoagoak dira arpilatzeak, eta tartean dira guretzat hil ala biziko arrisku diren islamista erradikalak». 70 urtetik gorakoa den Ahmed-ek, gertatutakoa antzetzuz, baieztatu du hori: «2018ko abenduan gertatu zen guztia, bi pertsona gure etxera sartu zirenean. Ahoa estali ziguten emazteari eta bioi, eta labana lepoan jarrita, bertan akabaturiko gintuztela esan ziguten dirua ematen ez bagenien».

COVID-A, GAITZ-ERDI

Afrineko hautsez betetako kaleetan maskarak baino AK-47 fusil gehiago ikusten dira, baina gerra bezala covid-a ere oso presente dago. Wagan sendagileak, Afrineko ospitale berriko sendagile buruak, kutsatzen zenbakiek azken hilabeteetan behera egin dutela adierazi digu. Maskararen erabilera urria den arren edo desinfektatzailearen hutsunea nabarmena, Turkiak finantzaturako ospitalea ez dago gainezka. «Covidarentzako 23 oheko atal berezi bat dugu, eta horietako 6 gaixo



Goian, turkiar Armadaren soldaduak Afrinen. Aurreko orrialdean, gero eta gutxiago diren yazidien herrixka bateko agureak. Albert NAYA MERCADAL

kritikoentzako dira», kontatu du sendagileak. Haren hitzetan, Afrinen 3.600 kutsatu eta 75 hildako erregistratu dira, baina herritarren ezjakintasuna ere azpimarratu du: «Inork ez du maskararik jartzen, ezta segurtasunezko distantzia uzten ere».

Gerrak desplazatutakoen barne kanpamenduetan, baldintzak okerragoak izanik, emakume adindu batek hitza jarri dio askoren pentsamenduari: «Covidaren aurka Jainkoak lagunduko digu», dio hatz erakuslea zerura begira jarritz. Kanpamendu horietan gertatzen dira kutsatze gehienak, sendagileak esandakoaren arabera. Baina Muhemediya-ko kanpamenduan fusil automatikoen hotsei birus isil bati baino beldur handiagoa dio. Eta isiltasun hori da giroan

nabarmetzen dena iristen ez diren eta berandu baino lehen iritsi beharko liratekeen txertoen gaia ateratzen denean. «Haietaz hitz egiten entzun dugu, diotenez laster jasoko ditugu», bere burua konbentzitzen saiatzen da sendagilea, «Turkiaren mende gaude, emango zizkigutela esan ziguten, baina oraindik ez daukagu bat bera ere».

Turkia da egun, indar okupatzailea den heinean, lurraldearen bermatzailea, eta ez bakarrik ospitaleak eraiki eta behar duten materialez hornitzeari begira. Afrineko ia 700.000 biztanleei txertoa jartzeko ardura ere badu. Hala ere, Turkian bizi diren errefuxiatu siriarrak ere ez dakite noiz lortuko duten beren dosia, eta bitartean, Ankararen txertatze plan erraldoiak 8 milioi biztanle turkiar txertatu ditu.

Beste lurralde batzuetan Damaskoren mende daude eta Human Rights Watch-eko Sara Kayyali-ren ustetan, Afrinekoak bezain oker, zaurgarri, egon daitezke. «Siriako Gobernuak osasun laguntza oztopatzea eta erretentitza gerrarako arma bezala erabili du, baina joko horretan segitzeak pandemia kontrolatzeko mundu mailako esfortzua ahultzen du». Beraz, azpimarratu duenez, «Siriarako txertoen hornitzaileek ahulenengana iristen direla bermatzeko eurenak eta bost egin behar dituzte, herrialdean zeinen kontrolpeko eskualdean bizi diren gorabehera. Txertoen hornitzaileetako bat Txina da. 150.000 txerto eta 20 arnasgailu hitzman dituzte, Damaskon den enbaxadore txinatarraren hitzetan, «Siriako gure anaia eta sozioentzat».

Bestalde, Osasunaren Mundu Erakundeak Covax izeneko mekanismo bat martxan jarri du txertoak munduko txoko guztietara iristeko helburuarekin, bereziki gerra eta pobrezia larriak diren lekue-tara irits daitezen. Siria izango da horietako bat, baina ekitatiboki banatuko dituen jakinkizun dago. Osasun ministroak berak esan zuenez, «gure herrialdearen burujabetasuna ez kolpatzea» izango da banaketarako ezinbesteko eskakizuna. Horrela bada, milizia kurdunen kontrolpeko Siriako ipar-ekialdea da txertoak azkar hartzeko okerren kokatua dagoen lurraldea.

«Lehen baino ohikoagoak dira arpilatzeak, eta tartean dira guretzat hil ala biziko arrisku diren islamista erradikalak»

«Diotenez, laster jasoko ditugu txertoak. Turkiaren mende gaude, emango zizkigutela esan ziguten, baina oraindik ez daukagu bat bera ere»